



HEZKUNTZA SAILA
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN

HEZKUNTZA LEGEA GARATZEKO LANGILEEN LAN-BALDINTZAK HOBETZEKO SINDIKATUEN ETA HEZKUNTZA SAILAREN ARTEKO AKORDIOA.

Euskal Hezkuntza Sistemak behar duen eraldaketarako eta irauteko bokazioa izango duen Hezkuntza Lege eraginkorrak, eremu politikoan egin beharreko akordioez gain, **eremu sindikal eta sozialarekin ere adostasunak lortzea** behar du. Legea hezkuntza-erlaldaketa bideratzera dator eta horretarako pertsonak ezinbestekoak dira. Adosturiko hobetze neurri hauek beharrezkoak dira hezkuntza-erlaldaketa azkartzeko.

Kalitatezko hezkuntza eskaintzeko ahaleaginean ari diren profesionalek lan-baldintza egokiak behar dituzte. Akordio honen bitartez ez ditugu dagozkion negoziazio mahaiak ordezkatu nahi; mahai horiei begira gutxieneko eduki batzuk garatu nahi ditugu, hezkuntza sistema hobetzeko ekarpena izango baitira. Akordio hau hedatu nahi dugu dagozkion negoziazio-mahaietan.

Hori horrela, Hezkuntza Legearen helburu eta jardun-lerro estrategikoen garapen eraginkorra bermatzeko Hezkuntza Sailak eta sindikatuek, langileen lan baldintzei dagozkien ondoko lan-ildo eta neurri hauek hitzartzen dituzte:

1. Sare publikoko langileak

1.1. Enplegua.

Kolektibo guztietan.

Kolektibo guztietan (Irakasleak, Heziketa Berezia, Sukalde eta Garbitzaileak, Haurreskolak Patzuergoa), **lanpostuak mantentzeko eta esleitzeko irizpideak** adostuko dira. Lanpostu guztiak mantentzeko konpromisoa, kolektibo guztiak bere osotasunean aintzat hartuz gauzatuko da.

Era berean, gazteberritze planak aztertu eta adostuko dira 60 urtetik gorako langileentzat.



HEZKUNTZA SAILA
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN

Langileen ordezkapenak era arin eta egokian kudeatzeko, proposamenak aurkeztuko dira sindikatuekin negoziatzeko eta adosteko.

Kontratuen iraupena aztertuko dira, lektiboak ez diren hilabeteak zein egunak zer nolako trataera izan beharko duten adosteko.

Haurreskolak Partzuergoan.

Egungo beharrak eta etorkizunekoak aztertuz, plantillak esleitzeko irizpideak finkatuko dira; egungo plantillari eusteko eta doakotasunaren ondorioz sortu litezkeen behar berriei erantzuteko lanpostu berriak sortuko dira.

Irakasleetan.

Egungo plantillari eutsiko zaio, 2022ko maiatzaren 26an sinatutako akordioaren esleipen irizpideak oinarri izanik, sindikatuokin negoziatuz, hezkuntzaren kalitatean eta zuzeneko arretan hobetzen laguntzeko neurriak, besteak beste, hurrengo arloetan sakontzeko: koirakaskuntzan eta eraldaketa pedagogikoan; hizkuntza indartzeko programetan, euskararen irakaskuntzan, alegia; atzerritarrak eskolan murgiltzeko programetan; hezkidetzan oinarrituriko esku-hartzeetan; edota aniztasunaren trataeran. Eginkizun horietarako formazioa eta laguntza-programak areagotuko dira.

Heziketa Bereziko kolektiboetan.

Egungo beharrak eta etorkizunekoak aztertuz, plantillak esleitzeko irizpideak finkatuko dira egungo eskolaren erronkei erantzuteko. Horrek aniztasun eta inklusiorako baliabideen horniketa-irizpideak negoziatzea ekarriko du, funtzioak eta ratioak aztertuz eta formazio- programak indartuz.

Sukalde eta Garbitzaileak.

Egungo plantilla, egungo beharrak eta etorkizunekoak aztertuz, plantillak esleitzeko irizpideak finkatuko dira eta enplegu plan bat egin. Sailaren menpeko langileak euskalduntzeko plan bat egingo da.

Jangela-eredua.

Hezkuntza Sailak, 2024 eta 2025ean zehar, jangela-ereduaren gaineko aukeren azterketa egingo du, langileen kudeaketa publikorako ereduak ere aztergai izanik.



HEZKUNTZA SAILA
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN

1.2. Egonkortasuna sistema publikoan.

Bitartekotasun-ehunekoak.

Irakasleen bitartekotasun-ehunekoak ez du %5a gaindituko. Ehuneko horretan egiturazko plazak sartuko dira. .

Kidego eta espezialitate bakoitzeko irakasleen lanpostu-zerrendan sartuko diren egiturazko plazak, plantilla esleitzeko irizpideak aplikatzearen ondoriozkoak izango dira eta sindikatuetakordezkariekin negoziatuko dira. Ikasle faltaz gutxitzear izan daitezkeen lanpostuak bestelako lan eta behar berrietara bideratuko dira. Berrikuntzari lotutako plazak, premia bereziei erantzuteko plaza egonkorrak eta ikastetxeen kudeaketari lotutakoak ere egiturazko joko dira.

Behin-behinekotasuna %5tik igoko ez dela bermatzeko neurriak.

Egungo egonkortze-prozesuak, 2024ean amaitu ondoren, hutsik dauden egiturazko lanpostuak langile finkoz edo karrerako funtzionario bidez betetzeko lekualdatze lehiaketak egingo dira. Lanpostu horien kopurua sindikatuokin negoziatuko da mahai bakoitzean, gardentasunez. Lan-eskaintza publikoetan hiru urtez jarraian dotazioa duten plaza huts guztiak sartuko dira.

Urteroko EPE prozesuak.

EPE prozesuak urtero burutuko dira hiru urteko ziklotan: lehen urtean, irakasle funtzionarioen maisu-maistra kidegoko plazak eskainiko dira. Bigarreanean, irakasle funtzionarioen bigarren hezkuntzako eta lanbide-heziketako kidegoko plazak eskainiko dira. Irakaskuntzako gaineko kidegoetako plazak (musika-eskolak, arte plastikoa eta diseinua, arte eszenikoak eta kontserbatorioak, Hizkuntza Eskola Ofizialak eta Ikuskaritza) lehen urtean eta bigarren urtean banatuko dira. Hirugarren urtean eskainiko dira lan-legepeko plazak (sukalde eta garbiketa eta heziketa berezia).

EPE eredu berria negoziatzea.

Hezkuntza publikoan lan egiteko hautaketa irizpideak egokituko dira. Horretarako, behin-behinekotasuna murriztuta eta egungo salbuespenezko egoera gaindituta, 2024an egonkortze prozesuak amaitutakoan, negoziatutako EPE eredu berriak



HEZKUNTZA SAILA
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN

aplikatuko dira hezkuntza publikoan lehen aldiz aritzeko eta lan-poltsen zerrendatzea adostuko da. Beharrezkoak diren berme juridikoekin negoziatuko dira hautaketa-prozesuak eta irakaskuntzan sartzeko prozesuak egungo premietara begira irizpide egokiagoekin moldatu: heziketan aritzen diren langileen ezagutza teorikoak, praktikoak edota gaitasun pedagogiko praktikoak zein bokazionalak ebaluatuz.

Administrazioak, bere eskumenen barruan, langile kolektibo bakoitzean probak prestatzeko materiala emango du eta irakasleen kidego eta espezialitate bakoitzerako probak prestatzeko materiala eta ikasgelako praktika pedagogikora egokitutako eredu orientatzaileak emango ditu.

Behin behineko irakasleen egoeraren azterketa.

Egun, egonkortzeko EPE deialdiak ebatzi eta gero, behin behineko irakasleen egoera azterturko da, sare publikoan emandako urteak eta adina kontuan harturik, neurri egokiak adosteko sindikatuekin ordezkoen araudi berrian jasotzeko.

Lanpostu guztien informazioa.

Sindikatuak eta alderdi politikoak aukera izango dute, hezkuntza publikoko sektore guztietan **lanpostu guztien informazioa** jasotzeko (lanpostuen zerrendan eta zerrendatik kanpo daudenak, lanpostuak betetzen dituzten langileen zerrendak eta hauen ordezkoei zein hauen antzinatasuna).

1.3. Soldatak.

Hezitzaileen soldata parekatzeko konpromisoa.

Hezkuntza-laguntza-espezialistak Haurreskolak Partzuergoan antzeko funtzioak eta ardurak dituzten haur-hezitzaileekin parekatuko dira 2024an, 2025ean eta 2026an modu progresiboan.

Kolektibo feminizatuak.

Kolektibo feminizatuak eta prekarizatuak lanari duen balio politiko, sozial eta ekonomikoa aitortu eta bide horretan erabaki berriak hartuko dira.



HEZKUNTZA SAILA
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN

1.4. Euskalduntzea

Kolektibo guztiak **euskalduntzeko konpromisoa** hartzen da, LPZetan hizkuntz-eskakizunak zehaztuaz. **Langile-kolektibo guzti**ei eskaini beharrezko etengabeko euskalduntzea bultzatuko da, esfortzu berezia eta plan berezitua eginez guztiz euskaldunak ez diren kolektiboetan:

- Lanbide Heziketako irakasle batzuk
- Sukalde eta Garbiketako langileak
- Hezkuntza Laguntza Espezialista zenbait.

2. Azpikontratako langileak.

Kontraturiko zerbitzuen azterketa zehatza egingo da eta emaitzarik onenak dituzten ereduak lehenetsi eta gauzatzeko plangintza garatuko da, lehenetsiz, garbitzaileak, jantokiko hezitzaileak zein autobusetako langileak.

Azterketa burutzeko prozedura, oinarritzko aztergatiak eta irizpideak adostuko dira 2023an.

3. Itundutako sareko langileak

3.1. Sarbidea.

Langile kolektibo ezberdinen sarbidea gardena izango da meritu, gaitasun eta berdintasun printzipioetan oinarrituta eta eskaintzen publikitatea bermatuta. Legeak zehazten duenaz gain, itundutako eskola bakoitzak Lanpostu Zerrenda osatzeko betebeharra izango du, 2 urtero eguneratu beharko dena.

3.2. Homologazioa nola gauzatu.

EAEko hezkuntza-sistemaren parte diren ikastetxeek funts publikoak jasotzeko betebeharretan, langileen soldaten ekiparazioa eta lan-baldintzen homologazioa, nola gauzatu diren adostuko da, dagokion prozeduraren bidez, bi urteko epean, hots, 2023an eta 2024an.

Prozesua zein baldintzetan burutuko den adostuko da (Legearen helburu eta printzipioekiko atxikipen eraginkorra, ikastetxeen proiektua egiteko koordinazio eta prestakuntza, urteko lanorduak...), beti ere, helburua izanik balizko ikastetxe-ereduaren irizpideak, ezaugarriak, egitasmo pedagogikoak eta baldintzak bermatzea. Azterketa hori



HEZKUNTZA SAILA
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN

egiteko eredugarriak diren ikastetxeak hartuko dira oinarri eta abiapuntu gisa, besteak beste, antzeko ezaugarriak dituzten ikastetxeen artean emaitzarik onenak dituztenen baldintza eta ezaugarrietatik abiatuta.

Funts publikoak jasoko dituzten itunduetako ikastetxeetako langileen ikastetxe publikoetako langileekiko soldaten ekiparazioa hurrengo bi ikasturteetan gauzatuko da, hots, 2025/2026an eta 2026/2027an.

Hezkuntzaren doakotasuna erdiesteko administrazioak bere gain hartuko ditu itunpeko ikastetxeetako irakasleen eta gainerako pertsonalaren funtzionamendu- zein inbertsio-kostuak, betiere hezkuntza proiektuari erantzuten diotenak. Hezkuntza-administrazioak berariazko administrazio-unitate baten bidez ezarriko ditu kontrol-mekanismoak, hezkuntza-zerbitzua benetan doakoa izango dela bermatzeko.

3.3. Publifikazioa.

Apirilaren 7ko Akordioan aurreikusitako publifikaziorako araudi gardena sortzeko konpromisoari jarraituz publifikatuko liratekeen ikastetxeetako langileak subrogatuko dira. Akordio orokor horren baitan adostuko dira langile kolektibo bakoitzaren subrogazio baldintzak, ez baikara ari soilik irakasleria sistema publikoan txertatzeaz. Eta langile bakoitzaren egoeraren aurrean irtenbideak adostuko dira: titulazioa eskuratzeko moratoriak, euskalduntzeko planak, antzintasunaren barematzea, lan-legepeko kontratazioa, etab.

4. Hezkuntza-ereduaren zehaztapenak.

4.1. Doakotasuna

Hezkuntza-administrazioak baliabide publikoak jarri behar ditu derrigorrezko eta doako irakaskuntzen doakotasuna gauzatzeko. Hezkuntza-administrazioak, funts publikoen bidez finantzatutako ikastetxeen bidez eta ikasleen matrikulazioa eta eskolatzea planifikatzeko tresnen bidez, hezkuntza-sistemako etapa eta ikasketa guztietan doako eskolatzea bermatuko du, gutxienez Haur Hezkuntzako bigarren ziklotik aurrera, legez eta erregelamenduz hala aurreikusten den moduan, honek kohesio soziala izango duelarik printzipio nagusitzat.

Hezkuntza-arloan eskumena duen sailak zehaztuko ditu bete beharreko irizpideak, eta finantzaketa publikoa jasotzen duten ikastetxeen jarraipena egingo du. Baliabide publikoak jasotzen dituen edozein erakunderi exijitzen zaio kontuak argitzea eta halaxe



HEZKUNTZA SAILA
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN

da euskal hezkuntzan ere. Hori dela eta, ikastetxe guztiek urteroko kontuak modu gardenean publiko egingo dituzte administrazioak horretarako ahalbidetuko duen eran.

Derrigorrezko doako irakaskuntzetan, eta arrazoi sozioekonomikoengatik bereizkeriarik ez egiteko, funts publikoekin finantzaturako ikastetxeek ezin izango dute familietatik etorritako funts edo kopururik jaso dohainik emandako irakaskuntzengatik. Era berean, ikastetxe horiek ezingo dute fundazioei edo elkarteei kuotak edo ekarpenak egiteko betebeharririk ezarri, ez eta irakaskuntzei lotutako nahitaezko zerbitzurik ezarri ere, finantzaketa publikoaren xede diren . zerbitzu, prestazio- edo esparru-materialei eragiten badiete. Ildo horretan, hezkuntza administrazioak berariazko administrazio-unitate baten bidez ezarriko ditu kontrol-mekanismoak, hezkuntza zerbitzua benetan doakoa izango dela bermatzeko.

Administrazio-unitatea berehala sortuko da eta sortze-momentu berean hezkuntza sistemako ikastetxe guztien auditoretza planifikatuko du, 2025 ikasturterako ikastetxe guztien auditoretzak izateko.

4.2. Euskara

Hezkuntza-sisteman euskaren irakaskuntzaren ebaluazioak argi erakusten du:

- Inguru sozioekonomikoak eta eskola-giroak elkarri eragiten diotela, hizkuntza kontuetan.
- Lezio/ikasgune formalen jardunez gaindiko hizkuntza-erabilerak duen garrantzi estrategikoa dela eta hainbat urtetan geldotzea izan duela.
- Ikas-etapa nagusien amaierarako helburu objektibagarrien ezinbestekotasuna; ikastetxe bakoitzaren Hizkuntza Proiektuak isla ditzakeela, edozein tresnak baino hobeto, bere baldintza eta izaera psikolinguistiko eta soziolinguistikoekin helburuok lortzeko . prozedura eta metodologiak.

Etiket euskaldun diren ikasleek ere berariazko atentzio didaktikoa behar dutela, euskararen egoera zailagoa eta urriagoa bizi dutenek behar duten bezalaxe. .

Legeak finkatzen du ikasleek irteera profilean lortu beharreko euskara-maila (B2) eta ezartzen du ikastetxe bakoitzak bere hizkuntza-proiektua landu behar duela helburu hori erdiesteko eta zehazten ditu hizkuntza-proiektuaren irizpideak eta osagaiak. Hezkuntza sailak euskalduntzea bermatzeko hizkuntza-proiektuak garatzeko planifikazioa egingo du.

Hezkuntza Sailak aurrez aipaturiko helburuak erdiesteko, besteak beste, hurrengoak bermatuko ditu:



HEZKUNTZA SAILA
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN

- Ikastetxe bakoitzak bere Hizkuntza Proiektua izateko baliabide-pertsonal eta material nahikoak; hezkuntza sailaren ardura izanik hizkuntza-proiektuak gauzatzeko aholkularitza, gidaritza, jarraipena eta ebaluazioa.
- Hezitzaile orok hizkuntza-gaitasun nahikoa, goi-mailakoa, bere disziplinan jarotasunez eta aberastasunez bestelakoa dela bermatzeko dagozkion etengabeko prestakuntza-lerroak eskura izatea.
- Ikastetxeko hezkuntza-komunitatearen parte diren familiei begirako euskalduntze programak, ikastetxeetan “euskara harrera hizkuntza izatea” izanik helburu.

4.3. Segregazioa

Hezkuntza Sistemak eraldaketarako duen erronka nagusietako bat segregazioa gainditzea da. Ezinbestekoa da eskola-plazen eskaintza eskolatze-premia errealetara ekartzea eta eragin eremu bereko ikastetxe guztiek egoera zaugarrien aurrean modu berean aurre egitea.

Berariazko hezkuntza-laguntza premiak dituzten eta zaugarritasun egoeran dauden ikasleen eskolatze orekatua eta banaketa orekatua lortzeko eragin eremu bakoitzean, eragin eremu bakoitzeko ikastetxe guztiei zaugarritasun indize bera esleituko zaie, arlo horri dagokiona, eta ikastetxe bakoitzak egin beharreko plaza-erreserba kalkulatzeko erabiliko da. Eskolatze orekatuaren xede hori modu progresiboan lortuko da.

Zaugarritasun indize hori lortzeko, dagokion eremuko baldintza sozioekonomikoak eta demografikoak hartuko dira kontuan, bai eta sartzeko eta onartzeko prozesuak parte hartzen duten ikasleen baldintza pertsonalak edo familiarak ere. Horiek zehazteko, bai eta plazak erreserbatzeko eta ikasleak banatu eta matrikulatzeko ere, hezkuntza-arloan duen sailak ikasleen datuak bildu ahal izango ditu, baldin eta datu horiek jakitea beharrezkoa bada. Zaugarritasun egoeran kalkulatzeko erabiliko den indizeak, halaber, datu objektiboak behar ditu.

Eskola eskaintzaren plangintzak eta ikasleen onarpena arautzen duten mekanismoek ekitatea gauzatzeko ikasleen banaketa orekatua izango dute helburu funts publikoak jasotzen dituzten ikastetxeetan, ikasleak arrazoi sozioekonomikoengatik edo beste izaera batekoengatik bereizi ez daitezten. Hori dela-eta, bata zein bestea arautzen duten erreglamenduak etengabeko ebaluazio eta hobekuntza prozesuan egongo dira; gizarte kohesioa izango delarik eskola erabakitze eskubidearen ginetik egongo den printzipio gorena.



HEZKUNTZA SAILA
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN

Eskola-plazen eskaintza benetako eskolatzeko-premietara egokituko da, ez dadin egon ez azpieskaintzarik, ez gaineskaintzarik. Eskaintzaren planifikazioak eta ikasleak onartzeko prozesua arautzen duten mekanismoek aniztasuna eta zaugarritasuna modu orekatuan banatu behar dituzte funts publikoen bitartez finantzaturako ikastetxe publiko guztietan, ez dadin ikasleen segregaziorik gertatu arrazoi sozioekonomikoak edo bestelakoak direla eta.

Eusko Jaurlaritzan hezkuntzaren arloko eskumena duen sailak elkarriketa aktiboko prozesu bat abiaraziko du hezkuntza-komunitatearekin, eskola-segregazioaren aurkako itun bat lortzeko. Akordio sozial horren oinarritzko partaide izango dira hezkuntza arloan ari diren profesionalak ordezkatzen dituzten sindikatuak baita ere.

Eskola segregazioari aurre egiteko tresna garrantzitsuenetako bat udalen parte hartzea da, tokiko errealitateak eskola segregazioaren kontrako politikak bultzatzeko eremu hurbilena baita.

Aurreko apartatuetan ezarritakoari dagokionez, egungo eskolatzeko-eredua mailaka eraldatzeko eta ikastetxe jakin batzuetan ikasle zaugarrien kontzentrazioa saihesteko xedez, hezkuntza proiektu integralak garatuko dira barruti edo eremu bakoitzean, udalekin lankidetzan eta erregelamendu bidez ezarritakoaren arabera, honako irizpide hauek kontuan hartuta:

- a) Eskola-mapa aztertzea eta egokitzea, ekitateari eta errendimenduari dagokienez.
- b) Ereduen efizientzia eta familien eta udal hezkuntza-kontseiluen parte hartzea.
- c) Ikasleen artean eta ikastetxeen artean egon daitezkeen desberdinkeriak gainditzea, hezkuntza-kalitatea babestea helburu.

Udal hezkuntza-kontseiluei kontsulta egingo zaie jarduera eta eduki hauei buruz:

- a) Hezkuntza-premiak identifikatzea, eskaintza banatzea eta ikasleak eskolatzeko irizpideak zehaztea, hiri-plangintzatik eratorritakoak barne.
- b) Berariazko hezkuntza-laguntzaren premia duten ikasleen eskolatzeko egokia eta orekatua bermatzeko behar diren jarduketak eta neurriak, arrazoi sozioekonomikoen edo bestelakoek sorturiko ikasle-segregazioa saihesteko.
- c) Ikastetxeen funtzionamenduari eragiten dioten udal-jarduketak.
- d) Udalerria esparru duten hezkuntza-patronatu, -partzuergo eta -erakundeak eratzea.
- e) Erregelamendu bidez aurreikusitako gainerakoak.



HEZKUNTZA SAILA
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN

5. AKORDIOAREN JARRAIPENA.

5.1. Akordio honetan adierazitako konpromisoak dagozkion negoziazio-mahaietara eramango dira, bertan berretsiak izan daitezen, dagozkien gehiengoak lortu ezker, indarrean jartzeko.

5.2. HEZKUNTZA SAILA eta sindikatuen arteko Jarraipen Batzordea osatuko da Hezkuntza Legearen testuinguruan burutu den hitzarmen honetako edukiak garatzeko.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko ekainaren 1a.